



*Bilbo atzean utzi eta Mungiara iritsi da gaur Ekimen Ibiltaria. Hala, industriaguneak bisitatu ditugu, eta enpresa txiki eta ertainetan gure aldarriak zabaldu ditugu, "Lan duina, bizi duina"; leloa oinarri. 35 orduko asteko lanaldiaren aldarrikapena izan da zabaldu dugun mezuetako bat.*

Goizeko lanketaren ostean, jarduera gehiago egingo ditugu arratsaldean Mungian. Hain justu, Infogunea muntatuko dugu Matxin plazan, 18:00etan. Orubete geroago, mahai inguru bati ekingo diogu leku berean, "Mungiako enpresen egoera eta herriarekiko lotura" izenburupean.

Ekimen Ibiltariak Bizkaian jarraituko du bihar:

- 13:00etan, auto karabana eta ekitaldi bat egingo dugu Zamudioko Teknologia Parkean.
- 18:00etan, Getxoko Txiki eta Otaegi plazan, Infogunea egokituko dugu.
- 19:00etan, Getxoko Txiki eta Otaegi plazan, mahai inguru bat egingo dugu, "Zaintza lanik gabe ez dago bizitzerik. Nork egiten ditu eta zein baldintzetan" izenburupean.